

EAEko Batzar Nagusiak

EAJk zentraltasuna irabazi du

| MIKEL ASURMENDI |



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Sabin Etxean ospatu zuten jeltzaleek EAJren garaipena, EBBko Andoni Ortuzar buruan buru.

ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO batzar nagusien gobernagarritasunak EAJren esku izanen dira ia ziur. Jeltzaleek Bizkaian sendo jarraitzen dute, Araban indarrez sartu dira eta EH Bildurekiko lehia irabazi dute Gipuzkoan. EH Bilduren eta EAJren arteko hegemonia lehian EAJ nagusitu da. EAEko batzarkide kopurua hauxe da: EAJk 54 ditu, EH Bilduk 39, PSEk 21, Podemos/Ahal Duguk 20. PPk 17, Irabazik eta Ciudadanosek (C's) bana. Azken biek Araban baino ez dute ordezkapenik lortu. Iraganeko ordezkartzak kontuan hartuta PSE eta PP alderdiak dira galtzaileak, PP erabatekoa. EAJz beste garai-lea Ahal Dugu da, indarrez sartu baita lurralde historikoetako hiru gobernuetan.

Arabian PP izan da bozkatuena

PPk lortu du boto gehien Araban, alabaina, EAJk alderdi popularrak baino eserleku bat gehiago bereganatu du: 13 batzarkide jeltzale izanen dira 12 popularren aldean. Datu esanguratsu bat: PPk 35.484 boto jaso ditu Gasteizko udal bozetan eta Batzar Nagusietan

berri, 34.406. Maroto efektuak ez du eragin bera izan foru gobernuen ordezkariak hautatzerakoan. Antza, PPko Javier De Andrés ahaldun nagusiaren agintaldia amaitu da. EH Bilduk boto eta batzarkide kopurua berritu ditu, baina ez du lortu espero zitekeen igoera. Bistan denez, Ahal Duguren agerpenak murriztu du bere garatze egingarria. Ahal Duguren emaitzek indar berri horren sendotasuna berretsi dute.

Ramiro Gonzalez jeltzalearekin garai berria heldu da Arabara. Halere, EAJk akordioa lortu beharko du, joko politikoa oso irekita dago. EH Bilduk (11 eserleku), Ahal Duguk (8) eta Irabazik (1) 20 batzarkide batzen dituzte. EAJk, PSEk eta C'sek, berriz, 19. Badago datu azpimarragarri bat: Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, Irabazi eta C's indarrek batzar nagusietan sartzeari lortu dute. Bestalde, eskuinaren eta ezkeraren arteko lehian agertoki politikoa zabaldu da. PSEren eta PPren jarrerek seinale berriak ekar litzakete euskal politikara, EAJk Madrilekiko itun politikaren bidea argitu lezaketenak.

Araba

BOTO KOPURUA



ALDERDIA	2015	2011
PP	34.975	39.653
EAJ	34.406	36.224
EH Bildu	32.467	36.178*
Podemos	23.103	-
PSE-EE	17.803	24.912
Irabazi	5.868	6.253**
Ciudadanos	4.925	-

* 2011n Aralar bakarrik aurkeztu zen. Orduan lortutako bozak (4.174) gehitu dizkiogu Bilduren emaitzari

** 2011n Ezker Batuak lortutako emaitza egotzi diogu Irabaziri

Abstentzioa	%34,3	%36,3
-------------	-------	-------

BATZAR NAGUSIEN OSAKETA



Bizkaia

BOTO KOPURUA



ALDERDIA	2015	2011
EAJ	212.656	216.453
EH Bildu	106.576	138.106*
Podemos	82.107	-
PSE-EE	70.361	97.001
PP	46.354	80.214
Irabazi	14.773	20.475**
Ciudadanos	12.012	-

* 2011n Aralar bakarrik aurkeztu zen. Orduan lortutako bozak (15.838) gehitu dizkiogu Bilduren emaitzari

** 2011n Ezker Batuak lortutako emaitza egotzi diogu Irabaziri

Abstentzioa	%37,4	%36
-------------	-------	-----

BATZAR NAGUSIEN OSAKETA



Gipuzkoa

BOTO KOPURUA



ALDERDIA	2015	2011
EAJ	112.933	80.864
EH Bildu	103.101	136.330*
PSE-EE	59.046	59.008
Podemos	43.136	-
PP	19.388	34.494
Irabazi	8.451	9.014*
Ciudadanos	5.262	-

* 2011n Aralar bakarrik aurkeztu zen. Orduan lortutako bozak (17.230) gehitu dizkiogu Bilduren emaitzari.

** 2011n Ezker Batuak lortutako emaitza egotzi diogu Irabaziri.

Abstentzioa	%35,1	%37,3
-------------	-------	-------

BATZAR NAGUSIEN OSAKETA



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

EAJ are nagusiagoa Bizkaian

Bizkaia da jeltzaleen berezko lurraldea. Azken hamarkadan Bizkaiaire esker atxiki izan du EAEko hegemonia politikoa eta berriz ere hautesleek berretsi diote nagusitasuna eta politikarako zentraltasuna. Unai Rementeria izanen da ahaldun nagusi berria. Hala ere, badago datu esanguratsu bat: Bizkaian abstentzioa 1,5 igo da duela lau urteko hauteskundeekin alderatuta. Hegoaldeko beste hiru lurraldeetan ez bezala, herritarren parte-hartzeak behera egin du. EAJk 23 batzarkide lortu ditu. Bat irabazi du, baina ia 4.000 boto galdu. EH Bilduk eserleku bat eta 15.000 boto inguru galdu ditu. Araban gertatu legez, garapen bidea moztuta geratu zaio une batez. Ahal Duguk jasotako botoek eragina izan dute bilakabide horretan dudarik gabe. Iñaki Uriartek zuzentzen duen indar berriak ia 82.000 boto jaso du lehen aldikoz eta 6 batzarkide izanen ditu politikan eragiteko. PSEk jipoi galanta jaso du, bi batzarkide galdu ditu, baita ia 30.000 boto ere bere berbetan berezko duen lurraldean. Ahal Dugu sartzeak berebiziko eragina izan du, ageri denez. PPrena erabateko porrota izan da. Bera da alderdi galtzaileena: 8 batzarkide izatetik 4 izatera pasa da, 35.000 herritarren sostengua galduz. Bistan denez, EAJk ziurtatuta dauka aginte makila, haatik, lurraldeen arteko itunen beharrean –udalerrietako itunak barne– PP eta PSEreko politikan bere nagusitasuna nola erabiliko duen ikuskizun dago, baita oso interesgarria egon ere. EH Bildu eta PSE Bizkaiko politiken erabaki nagusietan ez dira izango, baina ezkerreko politikak aldarrikatzen segitu behar dute. Ezkerreko politikaren ikuspuntu batetik, ezkerreko politikak gauzatzerakoan, EH Bilduk, PSEk eta Ahal Duguk 24 batzarkide dituzte, EAJk baino bat gehiago. EAJren eta PPren arteko sintonia izatea edo ez izatea adierazgarria izanen da oso, baita adierazgarria ere, bere burua ezkerreko alderditzat duen PSEk etorkizuneko politika nola gauzatuko duen ikustea. PSEren nahiz PPren geroa ez da batere samurra antzematen.

Jeltzaleek hegemonia kendu diote EH Bilduri Gipuzkoan

EAJ Gipuzkoan beste inon baino nabarmenago izan da irabazle. 18 batzarkide izanen ditu, duela lau urte baino lau gehiago. 32.000 boto irabazi ditu. Markel Olanok berreskuratu du ahaldun nagusiaren kargua. EH Bildu galtzaile atera da EAJrekiko hegemonia lehian. 5

PSE eta PP alderdiak dira galtzaileak, PP erabatekoa. EAJz beste garailea Ahal Dugu da, indarrez sartu baita hiru gobernuetan

batzarkide eta 15.000 boto gutxiago ditu. PSEk eutsi dio zeukan ordezkariari. Gainerako euskal lurraldeetan jasan dituen boto galerak ikusita, batzarkide bat baino ez duela galdu esan daiteke, boto kopuru bertsua jaso baitu Gipuzkoan. Hainbat udalerritan jaso duten sostenguak berretsi diote lurralde honetan baikor agertzeko. Antza, Ahal Duguren emaitzak eragin handiagoa izan du EH Bildun PSEn baino. PP izan da guztiz galtzaile Gipuzkoan, lau batzarkide zituen eta bakarrarekin geratu da. Ia 25.000 boto galdu ditu. Estatuko

Gobernua zuzentzen duen alderdia dela kontuan harturik, PP indar marjinala izatera pasa da. Ezker politikaren ikuspegitik, lurralde honetan beste inon baino are interesgarriagoa dago politikagintza. EH Bilduk eta Ahal Duguk 23 batzarkide dituzte EAJren 18en aldean. EAJk eta PSEk 27 batzarkide dituzte eta euren arte-

ko akordioaz Batzar Nagusiak osatuko dira arazorik gabe, baita Foru Aldundiaren gobernagarritasuna ere. Hala ere, PSEren apustua, hau da, ezkerrearen espazioan kokatzen omen den alderdi sozialistaren politika EAJren eskutik eramateak izanen dituen ondorioak inoiz baino eraginkorragoak izanen dira alderdi sozialistaren bilakabidean. Ez alferrik, Ahal Dugu indar berria heldu da, baita geratzeko heldu ere.

Abstentzioa handia izan da

Abstentzioa %35 ingurukoa izan da EAEko Batzar Nagusietan. Nafarroan ez bezala, –Foru Parlamenturako hautesleen %28k eman du bozka– datu adierazgarria izan da bozka eman gabe geratu den hautesle kopurua. Alderdi batetik besterako botoen joanarazte posiblea baino, hainbat boto-emaileren abstentzioa ere kontuan hartu beharko litzateke. Halaber, EAEko hiru lurralde historikoetako emaitzek utzitako gogoetagaien artean hauek nabarmendu daitezke: EAJ eta EH Bilduren arteko lehian jeltzaleak garaile jaigi dira. Eusko

Legebiltzarreko datorren urteko hauteskunde bitartean –udazkeneko Espainiako Kongresurakoak tartean–, emaitza hauek EAJk Madrilera begirako politika orokorrean aurrerapauso bat ematera behartzen du nolabait. EH Bilduk berriz, egin duen autokritikaren funtsa zein den argitu beharko du. PPK eta PSOEk inoizko une estuena bizi dute Euskal Herrian eta Podemos/Ahal Duguk politikaren aldaketarako giltza eskuratu du. ■

Abstentzioa %35 ingurukoa izan da EAEko Batzar Nagusietan. Datu adierazgarria da bozka eman gabe geratu den hautesle kopurua